



<p><b>AGINDUA, JAURLARITZAKO LEHENENGO LEHENDAKARIORE ETAKULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIKO KONTSULTA EGITEN BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN HELDUEN EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA ITUNTZEKO ARAUBIDEA EZARRI ETA ARAUTZEKO XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO</b></p>	<p><b>ORDEN DE LA VICEPRESIDENTA PRIMERA DEL GOBIERNO Y CONSEJERA DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA, POR LA QUE SE SOMETE A CONSULTA PREVIA LA ELABORACIÓN DE UNA DISPOSICIÓN DE CARÁCTER GENERAL PARA EL ESTABLECIMIENTO Y REGULACIÓN DEL RÉGIMEN DE CONCERTACIÓN DE LA EUSKALDUNIZACIÓN Y ALFABETIZACIÓN DE PERSONAS ADULTAS EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI</b></p>
<p>Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Euskadin helduen euskalduntzea eta alfabetatzea ituntzeko araubidea ezartzeko eta arautzeko xedapen orokorreko proiektu bat egiten hasteko asmoa du.</p>	<p>El Departamento de Cultura y Política Lingüística tiene previsto iniciar la elaboración de un proyecto de disposición de carácter general de establecimiento y regulación del régimen de concertación de la euskaldunización y alfabetización de personas adultas en Euskadi.</p>
<p>Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua adierazten duenez, xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia testu juridikoen proposamenak idatzi aurretik, hamabost eguneko epean gutxienez, eta testu juridiko jakin bat onartu aurretik.</p>	<p>El artículo 11 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General señala que el órgano o centro directivo promotor de la tramitación de la disposición de carácter general recabará en consulta pública, con un carácter previo a la redacción de las propuestas de textos jurídicos normativos, la opinión en la sociedad de la ciudadanía durante un plazo suficiente y no inferior a quince días.</p>
<p>Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, xedapen arautzaile orokorrak egiteko prozedura aplikatzeari buruzko jarraibideak onartu ziren. Jarraibide</p>	<p>Por Acuerdo del Consejo de Gobierno, de 12 de diciembre de 2017, se aprobaron Instrucciones sobre la aplicación del procedimiento de elaboración de las disposiciones normativas de carácter</p>



<p>horietan ezarri zen aurretiazko kontsultaren izapide hori xedapen orokorra izapidetzea sustatu duen organoak edo zuzendaritza-zentroak bete ahal izango duela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan iragarkia jarrita.</p>	<p>general, en las cuales se determinó que la cumplimentación del citado trámite de consulta previa podrá realizarla el órgano o centro directivo promotor de la tramitación de la Disposición de Carácter General mediante anuncio en el Tablón de Anuncios de la Sede Electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.</p>
<p>Kontsultak honako alderdi hauek jorratu behar ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.</li> <li>b) Hura onartzearen premia eta egokitasuna.</li> <li>c) Arauaren xedeak.</li> <li>d) Bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.</li> </ul> <p>Hori dela eta, aurretiazko kontsultaren izapidea bete nahi da iragartzen den xedapena egin baino lehen, arauaren eraginpean egon daitezkeen herritarrek eta erakundeek parte hartu ahal izan dezaten eta ekarpenak egin ahal izan diezazkioten planteatu den arauari.</p>	<p>La consulta se debe referir a los siguientes aspectos:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.</li> <li>b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.</li> <li>c) Los objetivos de la norma.</li> <li>d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.</li> </ul> <p>Por ello, se pretende dar cumplimiento al citado trámite de consulta previa a la elaboración de la disposición anunciada, a los efectos de que la ciudadanía y demás entidades afectadas por la norma tengan la posibilidad de participar y realizar aportaciones a la norma que se plantea.</p>
<p>Beraz, kontsulta:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Prestatuko den araudi horren eraginpean egon daitezkeela uste duten erakunde publiko, pertsona fisiko eta erakunde, entitate edo elkarte guztientzat da.</li> </ul>	<p>Por todo ello, la consulta:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Se abre a todas aquellas instituciones públicas y personas físicas, así como organizaciones, entidades o asociaciones que puedan considerarse afectadas por esa futura regulación normativa.</li> </ul>



<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoa argitaratuko da.</li> <li>• Hamabost egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta entitateek egokitzat jotzen dituzten iradokizun eta iruzkin guztiak aurkez ditzaten.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Se publicará en la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.</li> <li>• Se establece un plazo de quince días hábiles para que las instituciones afectadas, la ciudadanía y sus entidades presenten todas aquellas sugerencias u observaciones que tengan por conveniente.</li> </ul>
<p>HABEren arau organikoak onartzen dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuaren 6. artikulua, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11.3 artikuluekin eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuekin lotuta, HABEko zuzendari nagusiari esleitutako eskumenez baliatuz, honako hau</p>	<p>En virtud de las competencias atribuidas a la vicepresidenta primera del Gobierno y consejera de Cultura y Política Lingüística en la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, en el Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, y, en su condición de presidenta de HABE, en la Ley 29/1983, de 25 de noviembre, de creación del Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos y de Regulación de los Euskaltegis,</p>
<b>EBAZTEN DUT</b>	<b>RESUELVO</b>
<p><b>Lehenengoa.-</b> Kontsulta publikoaren izapidea egitea, idazketa eman aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoan helduen euskalduntzea eta alfabetatzea ituntzeko araubidea ezarri eta arautzeko xedapen orokor baten proiektuari.</p>	<p><b>Primero.-</b> Someter a trámite de consulta pública, con carácter previo a su elaboración, el proyecto de una disposición de carácter general con el objeto de establecer y regular el régimen de concertación de la euskaldunización y alfabetización de personas adultas en Euskadi.</p>



<p><b>Bigarrena.-</b> Herritarrek eta arauak eragindako erakundeek, hala nahi badute, hamabost egun balioduneko epean helarazi ahalko dituzte agindu honen eranskinean azaltzen diren alderdiei buruzko iritzia, kontsulta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoa argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.</p>	<p><b>Segundo.-</b> La ciudadanía y entidades afectadas por la norma, que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en el Anexo a esta Orden en el plazo de quince días hábiles, contados desde el día siguiente al de su publicación en la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.</p>
<p>Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.</p>	<p>En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica.</p>

**IBONE BENGOETXEA OTAOLEA**

**Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde  
eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua**

**Vicepresidenta primera del Gobierno  
y consejera de Cultura y Política Lingüística**



## ERANSKINA

## ANEXO

ALDEZ AURREKO KONTSULTA  
HERRITARREI, EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOAN HELDUEN  
EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA  
ITUNTZEKO ARAUBIDEA EZARTZEKO  
ETA ARAUTZEKO XEDAPEN  
OROKORRAREN PROIEKTUA EGITEKO

CONSULTA PREVIA A LA  
CIUDADANÍA A PROPÓSITO DE LA  
ELABORACIÓN DEL PROYECTO DE  
DISPOSICIÓN DE CARÁCTER  
GENERAL DISPOSICIÓN DE CARÁCTER  
GENERAL PARA EL ESTABLECIMIENTO Y  
REGULACIÓN DEL RÉGIMEN DE  
CONCERTACIÓN DE LA  
EUSKALDUNIZACIÓN Y ALFABETIZA-  
CIÓN DE PERSONAS ADULTAS EN LA  
COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

A) EKIMENAREKIN KONPONDU NAHI  
DIREN ARAZOAK

A) PROBLEMAS QUE SE PRETENDEN  
SOLUCIONAR CON LA INICIATIVA

Helduei euskara irakasten dieten euskaltegien eta gainerako zentro homologatuen jarduera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren finantzaketa arautzen dituen uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuaren IV. kapituluak HABEk helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko zentroei edo euskaltegiei eman diezazkiekeen laguntzen deialdiarako esparrua ezartzen du. Arau horren 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, «*HABEk laguntza emango du, bere aurrekontu-bitartekoen muga barruan, Erregistroan inskribaturik dauden euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuak finantzatzeko, helduak alfabetatzen eta euskalduntzen lan egiteagatik*». Horri dagokionez, «*HABEren zuzendari nagusiak, ikasturte akademiko bakoitzean, dirulaguntzen deialdiak egingo ditu euskaltegietan eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan burututako alfabetatze eta euskalduntze-ikastaroei dagokienez*», «*dirulaguntza eta subentzio publikoen*

El Capítulo IV del Decreto 179/2003, de 22 de julio, de regulación de la actividad de los euskaltegis y demás centros homologados que imparten la enseñanza del euskera a adultos, y de su financiación por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, establece el marco para las convocatorias de ayudas que HABE puede proporcionar a los centros de euskaldunización y alfabetización de adultos o euskaltegis. En virtud de lo dispuesto en el artículo 16 de la citada norma, «*HABE colaborará, dentro de sus disponibilidades presupuestarias, en la financiación de los euskaltegis y centros homologados de autoaprendizaje de euskera, inscritos en el Registro, por su labor de alfabetización y euskaldunización de adultos*» a cuyo respecto «*El Director General de HABE realizará, cada curso académico, convocatorias de ayudas relativas a los cursos de alfabetización y euskaldunización impartidos por los euskaltegis y centros homologados de autoaprendizaje de euskera*» en el marco



*alorrean legez ezarritako printzipioen* esparruan.

Hala ere, HABEri esleitutako eginkizun horretan (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortzeari eta Euskaltegiak Arautzeari buruzko azaroaren 25eko 29/1983 Legearen 2.f) artikuluan ezarrita dagoen moduan, «*Helduen euskalduntze eta alfabetatze lanak egiten dituzten erakunde publiko eta pribatuentzako laguntza*») bi hamarkada baino gehiagoko eskarmentutik finantzaketa-eredu holistikoagoetarako trantsizioa gomendatzen duen ikuspegi bat eratortzen da. Ituntze-sistema finantzazio-eredu apropos hori izan daiteke. .

Lehenik eta behin, aurrekontu-ekitaldien urteko erreferentzia urte naturalarekin lotzen da, eta euskaltegien eskola-ekitaldia, berriz, ikasturtearekin. Hori dela eta, dirulaguntzen deialdiak etorkizuneko matrikulazioen zenbatespenen gainean egin behar dira beti. Izan ere, nahiz eta desbideratze jakin eman daitekeen (are gehiago prestakuntza-maila jakin batzuetan doakotasuna ezartzen ari den testuinguru batean), eta ikasturtean zehar izandako gorabeheren ondorioz ikasleengan sor daitezkeen gorabeherak ahaztu gabe. hitzarmen sistema bat ezartzeak egonkortasuna eman diezaike euskaltegiei, gorabehera horiei aurre egiteko gai izan daitezten.

Nolanahi ere, hemen izapidetzen ari den ekimena 179/2003 Dekretuan ezarritako esparru orokorrarekin juridikoki harmonizatzeko, beharrezkoa izango da, aldi berean, dekretu hori aldatzea, ikasturtearen esparrua gainditzen duten ekimen horretara edo beste batzuetara

de los «*principios legalmente establecidos en materia de ayudas y subvenciones públicas*».

No obstante, de la experiencia de más de dos décadas en ese sistema de financiación de los euskaltegis, función encomendada a HABE en el artículo 2.f) de la Ley 29/1983, de 25 de noviembre, de creación del Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos y de Regulación de los Euskaltegis («La ayuda a las entidades públicas y privadas que desarrollen tareas de euskaldunización y alfabetización de adultos») se extrae una visión que aconseja la transición hacia modelos más holísticos de financiación, como puede ser el sistema de concertación.

En primer lugar, el hecho de que la referencia anual de los ejercicios presupuestarios se vincule al año natural, mientras que el ejercicio lectivo de los euskaltegis se referencia al curso escolar, fuerza a que las convocatorias subvencionales se realicen siempre sobre estimaciones de matriculaciones futuras, que, aunque atinadas, no están exentas de cierto grado de desviación, máxime en un contexto de implantación de gratuidad en determinados niveles formativos (y sin olvidar las fluctuaciones que pueden producirse en el alumnado por incidencias acaecidas durante el curso escolar). En ese sentido, la implantación de un sistema de concertación puede dotar a los euskaltegis de una estabilidad capaz de afrontar las citadas fluctuaciones.

En todo caso, la armonización jurídica de la iniciativa que aquí se tramita con el marco general establecido en el Decreto 179/2003 exigirá, paralelamente, la modificación del citado Decreto para adecuarse a esta u otras iniciativas que trasciendan el marco del curso escolar



egokitzeko, ikasturtea baita, egun, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea finantzatzeko erreferentziako funtsezko unitatea. Eraginkortasun- eta legegintza-teknika arrazoiak direla eta, doikuntza hori prozedura independente batean gauzatu da.

Bigarrenik, administrazio publikoen dirulaguntza-dinamikaren esparru juridikoak, eta, zehazki, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak, dirulaguntza-jarduera lotzen dute helburu, portaera, jarduera edo banaka daitezkeen proiektuetara (eta ondorioz, bere horretan ebalua daitezkeenetara), eta ez jardun global edo egiturazkoetara. Hala, dirulaguntzen araudia euskaltegi pribatuen jarduerari aplikatzean, zailtasun teknikoak sortzen dira, zeinak euskaltegi pribatuentzako laguntzen azken deialdien txosten juridiko eta kontrol ekonomikoko txostenetan agerian geratu diren.

Hala, dirulaguntzen jardueraren egoera paradigmaticoa, lehiakortasunean oinarritua ez dator bat, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak behin baino gehiagotan adierazi duen bezala, euskaltegien berezko finantzaketa-arkitekturarekin. Egungo sisteman, legez esleituta duen aginduari jarraituz, HABE euskaltegien jardueraren iraunkortasun globala zaintzeaz arduratzen da, eta eman beharreko dirulaguntzak emango direla aurreikusten diren eta ondoren doituko diren eskola-orden araberak kalkulatu ditu. Horrela, ez da gertatzen, eta ez da bilatzen ere, benetako lehia-egoerarik, euskaltegi batzuk beste batzuen aurrean diruz laguntzea eragiten duenik, eta lehia hori sustatzeko bokaziorik ez badago, orduan dirulaguntzen bidea ez da egokiena haren finantzaketa antolatzeko.

como unidad fundamental de referencia para la financiación de la euskaldunización y alfabetización de adultos. Por razones de eficiencia y técnica legislativa, ello se materializará en un procedimiento independiente.

En segundo lugar, el marco jurídico de la dinámica subvencional de las administraciones públicas, y en concreto, la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones, vinculan la actividad subvencional a objetivos, comportamientos, actividades o proyectos individualizables (y evaluables en sí mismos), y no globales o estructurales, de forma que, en la aplicación de la normativa subvencional a la actividad de los euskaltegis privados, surgen dificultades de índole técnica puestas de manifiesto en los informes jurídicos y de control económico de las recientes convocatorias de ayudas a los euskaltegis privados.

Así, la situación paradigmática de la actividad subvencional, la concurrencia competitiva, no se compece adecuadamente, como ha señalado en más de una ocasión la Oficina de Control Económico, con la arquitectura de financiación propia de los euskaltegis. En el sistema actual, siguiendo el mandato que legalmente tiene atribuido, HABE vela por la sostenibilidad global de la actividad que realizan los euskaltegis y estima las subvenciones a conceder en función de las horas lectivas que se prevén impartir, y que se ajustan posteriormente. Así, no se produce, ni se busca, una situación de verdadera competición que haga que se subvencione a algunos euskaltegis frente a otros, y si no existe la vocación de estimular esa pugna, entonces la vía subvencional no resulta la más apropiada para articular su financiación.



Era berean, dirulaguntzen legeriak berak ezohiko eta hondar-moduan tratatzen duen ondoz ondoko konkurrentziak ere ez dio guztiz erantzuten iragarritako eskemari. Legez onargarria izateko, ondoz ondoko konkurrentziak laguntza bat ematean eragina duten aldagai guztiak aurrez zehaztu behar ditu, halako moldez non laguntza ematea jarduera guztiz arautua eta baloraziorako tarterik gabea izango den. Baina hori ezinezkoa da euskaltegien kasuan; izan ere, esan bezala, hasieran zenbatetsitako eta ondoren doitutako errealitateen arabera finantzatzen dira, eta, beraz, ezinezkoa da diruz lagunduko dena aldeaz aurretik erabat zehaztea.

Ildo horretan, ituna, berez urte anitzetan irauteko bokazioa duena, aipatutako zailtasunak gainditzeko eta euskaltegi pribatuentzat zein ikasleentzat euskara helduei irakasteko beharrezkoa den segurtasun juridikoa eta finantzarioa eskaintzeko gai den irtenbide gisa aurkezten da.

Izan ere, euskaltegiekin adosten den plangintza, epe luzeko erronkei eta estrategiei heltzen diena, lau urtekoa da jada: 2022an adostu ziren lau urteko ziklo baterako plangintza-ildo orokorrak, eta 2026an ere hala izango da hurrengo ziklorako. Hori horrela izanik, euskaltegien jarduerari segurtasun juridikoa eta ekonomikoa emateko modurik egokiena ituntze-sistema bat da, betiere jarduera horri eusten bazaio. Adierazi behar da, gainera, azken urteotan ahalegin handia egin dela euskaltegi pribatuetako irakasleen baldintzak hobetzeko, ordura arte behin-behinekotasun handia zuen sektore bat baitzen, pixkanaka murrizten ari dena, eta horrek guztiak haien profesionaltasuna eta egonkortasuna handitzea ekarri du. Hori guztia sektore horretako soldadagoeren politika baten bidez baino ezin

Tampoco la concurrencia sucesiva, que la propia legislación subvencional trata de forma extraordinaria y residual, termina de responder plenamente al esquema anunciado. Para resultar legalmente admisible, a la concurrencia sucesiva se le exige la predeterminación de todas las variables que inciden en la concesión de una ayuda, de tal forma que la concesión suponga una actividad totalmente reglada y sin margen para la valoración. Pero ello no resulta posible en el caso de los euskaltegis, dado que, como se ha dicho, se financian sobre realidades inicialmente estimadas y posteriormente ajustadas, de tal forma que su predeterminación apriorística resulta imposible.

En ese sentido, la concertación, que posee de suyo una vocación plurianual, se presenta como una solución capaz de superar las dificultades antecitadas y ofrecer la seguridad jurídica y financiera necesaria tanto para los euskaltegis privados como para el propio alumnado en la impartición de la enseñanza del euskera a personas adultas.

De hecho, la planificación que se acuerda con los euskaltegis, donde se abordan los retos y estrategias a largo plazo, tiene ya un carácter cuatrienal: lo fue en 2022, cuando se acordaron las líneas generales de planificación para un ciclo de cuatro años, y volverá a serlo este 2026 para el ciclo siguiente. Siendo ello así, un sistema de concertación se presenta como el más adecuado para dar seguridad jurídica y económica a la actividad de los euskaltegis, siempre que esta se mantenga. Debe señalarse, adicionalmente, que en los últimos años se ha realizado un esfuerzo denodado por mejorar las condiciones del profesorado de los euskaltegis privados, aquejados, hasta entonces, de una gran temporalidad que paulatinamente se está reduciendo, de tal forma que todo ello redundará en el incremento de su



izan da egin, eta politika horrek egokitze juridiko hobe eta egonkortasun ekonomiko handiagoa izan ditzake ituntzean oinarritutako finantzaketa-sistema batean.

Gainera, ituntzea zuzenean diruz lagundu ezin diren jarduerak kontratatze prozesu konplexuak saihesteko irtenbidea izan daiteke. Izan ere, HABEK berriki baliatu behar izan du, besteak beste, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 226. artikuluan aurreikusitako eskuratzeko sistema dinamikoa. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Orain arte diruz lagundutako jarduerekin gertatu bezala, kontratatutako prestaziook ituntzeko aukera dagoen heinean, urte anitzeko bokazioa duen tresna juridiko bakar batek sinplifikatu egin dezake euskaltegi pribatuen beharrak aztertze eta jarduera finantzatzeko administrazio-lana. Epe ertain eta luzean, horrek ekar dezake HABEK hobeto bete ahal izatea administrazio-prozeduren arrazionalizazio- eta arintasun-, efizientzia- eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efikazia printzipioak.

Hirugarrenik, itundu daitezkeen zerbitzuak zehazteak erraztu egin dezake aldi baterakoak diren edo aurreikusi ezin diren hainbat premia egoera bideratzea. Horrela, itunak esparru egonkor bat ezar dezake irakasleak edota hizkuntza-mailak egiaztatze probak zuzentzeko beharrezkoa den euskaltegietatik datozen irakasleak hornitzeko, une honetan indarrean

profesionalidad y estabilidad. Ello solo ha sido posible a través de una política de incrementos salariales en este sector, que pueden hallar mejor acomodo jurídico y mayor estabilidad económica en un sistema de financiación concertada.

Además, la concertación puede resultar una solución para evitar procesos complejos de contratación de actividades que no pueden subvencionarse directamente, y que HABE ha ejecutado recientemente empleando, entre otros, el sistema dinámico de adquisición previsto en el artículo 226 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.

En la medida en que las prestaciones así contratadas puedan ser objeto de concertación, igual que puedan serlo las hasta ahora subvencionadas, un único instrumento jurídico, como se ha dicho, de vocación plurianual, puede simplificar la tarea administrativa de estudio de las necesidades y financiación de la actividad de los euskaltegis privados. Ello puede redundar, al medio y largo plazo, en un mejor cumplimiento, por parte de HABE, de los principios de racionalización y agilidad de los procedimientos administrativos, eficacia y eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.

En tercer lugar, la determinación de los servicios susceptibles de concertación puede facilitar el encauzamiento de una diversidad de necesidades prácticas eventuales o de relativa imprevisibilidad. Así, la concertación puede establecer un marco estable de dotación de profesorado proveniente de los euskaltegis para la corrección de las pruebas de acreditación de niveles lingüísticos, superando el sistema de adscripción voluntaria e individual



dagoen zuzentzaileen borondatezko eta banakako atxikipen-sistema gaindituz. Ildo beretik, ituna oinarri izan daiteke euskaltegiek administrazioak behar dituen baliabideak gero eta gehiago hornitzeko, hala nola hezkuntza-materialen eta azterketa-ereduen ekoizpena, azterketa eta ebaluazioa, euskaltegian bertan trebetasunen egiaztapen autonomoan sakontzeko aukera eman, eta abar. Bestalde, HABE ikasleen matrikularen doakotasunaren aldeko apustu garden bat egiten ari da, eta hemen proposazen den finantzazio-sistema helburu hori eraginkotasun handiagoz burutzeko tresna erabakiorra izango da.

Beraz, finantzazio-sistemaren aldaketa honek **jauzi kualitatibo nabarmena** ekarriko du helduen euskalduntzean: irakasleen profesionalizazioan eta egonkortasunean, euskaltegien etorkizunean, HABEren kudeaketaren hobetze eta desburokratizazioan, eta azkenik, ikasle gehiago euskaltegiratzeko matrikularen doakotasun-programak landuz, ahalik eta euskara-erabiltzaile gehiago sustatzeko euskararen erabileraren mesedetan.

imperante en este momento. En la misma línea, la concertación puede servir de base para una creciente provisión de recursos necesarios para la administración por parte de los euskaltegis en materias como la producción, análisis y evaluación de los materiales educativos y los modelos de examen, la posibilidad de ahondar en la acreditación autónoma de destrezas en el propio euskaltegi, etc. Por otra parte, HABE está realizando una apuesta decidida por la gratuidad de la matrícula de los alumnos y alumnas, y el sistema de financiación que aquí se propone podrá ser un instrumento decisivo para llevar a cabo este objetivo con mayor eficacia.

Por lo tanto, este cambio en el sistema de financiación supondrá **un salto cualitativo evidente** en la euskaldunización de personas adultas: en la profesionalización y estabilidad del profesorado, en el futuro de los euskaltegis, en la mejora y desburocratización de la gestión de HABE y, por último, en la ampliación del número de alumnos mediante la elaboración de programas de gratuidad de la matrícula para fomentar el mayor número de vascohablantes en beneficio del uso del euskera.

## B) ONARTZEKO PREMIA ETA EGOKITASUNA

Adierazi den bezala, araua premiazkoa eta egokia da euskaltegi pribatuen jarduerari egonkortasuna emateko, aurrekontu-urterokotasunaren printzipioak ezarritako mugetatik harago, eta zaila da Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean aurreikusitako dirulaguntzen esparru juridikoa aplikatzea euskaltegiaren egiturazko funtzionamenduari, eta egiten dituzten jardueren gauzatzea sinplifikatzea, administrazioaren kontratazio publikoko

## B) NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE SU APROBACIÓN

Como se ha señalado, la norma es necesaria y oportuna para dotar de estabilidad a la actividad de los euskaltegis privados más allá de los límites establecidos por el principio de anualidad presupuestaria y la dificultad de aplicar a su funcionamiento estructural el marco jurídico subvencional previsto en la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones, y simplificar la ejecución de las actividades que realizan mediante el concurso a procedimientos dinámicos



prozedura dinamikoetarako lehiaketaren bidez.

de contratación pública por parte de la administración.

### C) ARAUAREN XEDEAK

### C) OBJETIVOS DE LA NORMA

Arauaren helburua da euskaltegi pribatuak finantzatzeko sistema berri bat ezartzea, gaur egun ematen zaizkien dirulaguntza-lerroen denborazko mugak eta muga teleologikoak, arazo tekniko eta izapide luzeak, eta kontratazio-sistema konplexuak gaindituko dituen.

El objetivo de la de la norma es establecer un nuevo sistema de financiación de los euskaltegis privados que supere las limitaciones temporales y teleológicas, los problemas técnicos y las extensas tramitaciones de las líneas subvencionales que se les otorgan actualmente y los complejos sistemas de contratación a los que concurren.

### D) BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK

### D) LAS POSIBLES SOLUCIONES ALTERNATIVAS REGULATORIAS Y NO REGULATORIAS

Itun-sistemaz bestelako aukera arautzaileak bakarrak dira HABEK euskaltegi pribatuei ematen dizkien dirulaguntzak arautzen dituzten arauak partzialki erreformatzea ahal den neurrian, azaldutako disfuncionalitateak minimizatzeko, baina horrek beti izango du irismen mugatu bat dirulaguntza-sistemaren beraren esparrua gainditzen ez bada.

Las alternativas regulatorias distintas a un sistema de concertación consisten en la reforma parcial de las normas que regulan la actividad subvencional de HABE hacia los euskaltegis privados, para minimizar, en la medida de lo posible, las disfuncionalidades expuestas, pero ello siempre tendrá un alcance limitado si no se supera el marco del propio sistema subvencional.

Ez dago aukera ez-arautzailerik, administrazio publikoak funts publikoak erabiltzeko lege-oinarria eta egitate-bidearen erabateko debekua behar baitira beti.

No existen alternativas no regulatorias, en la medida en que la disposición de fondos públicos por parte de la administración pública exige siempre un sustento legal y la total prohibición de la vía de hecho.